

0.- SARRERA

Badirudi negua atzean geratzen ari dela eta, bedatsearekin batera, *Bidankozarteko* zenbaki berri bat iristen da.

Ale honetan ohiko ataletako batzuk faltako dira (hiztegia, Mariano

Mendigatxaren gutunak) haien tokia nire arreta erakarri duten beste artikuluko batzuk bete baitute, baina toki ezako kontua besterik ez da izango, hurrengo zenbakietan itzuliko baitira.

Eta hau esanda, bedatseko aldizkari honetako edukietara pasatuko gara, ezagutzen ez duzuen zerbait aurkituko duzuen itxaropenean.

Harira, ba.

1.- HISTORIA APURRAK - BETEGABEKO EZKON-HITZ BAT (1764-1769)

Oraingoan egokitzen zaigun kontua gai errepikaria da gure inguruko edozein herriko historian, eta munduko edozein lekutan ere esatera ausartuko nintzateke.

Laburbilduta ondoren aurkezten den gidoiaren antzeko zerbait litzateke. Betiko *mutilak neska ezagutzen du* kontuarekin hasiko litzateke. Bikotea lagun min egiten hasiko zen eta, halako batean, mutilak neskari masaileko muxuetatik pixka bat haratago joatea proposatuko lioke, alegia, *erasoa jotzea*. Pentsa dezakegu, orduko pentsamoldearekin, neskak ezetza emango ziola, ezkontuta egon gabe bekatua zelako. Orduan mutilak bere barrurako pentsa zezaken *Parisengatik meza bat merezi du*, eta bere helburua lortzeko ezkon-hitza ere emango zion: "Ederki, bai, ezkonduko gara". Eta seguruenik azkeneko hau behin eta berriz errepikatuko zen, halabeharrez gertatuko zena gertatzeko: Neska haurduz geratzen zela.

Hemendik aurrera komeria hauen bigarren atala iritsiko zen, ohikoa zenez bikoteko kideak zeresan gutxi izango zuten eta, garai hartako gai hauetan gertatzen zen bezala, senitartekoen erabakietara murriztuko zen, eta kasuak kasu, haien arteko ulermen eta akordioetara.

Aldi gehienetan sendiak bikotekideak egoerari aurre egitea behartuko zituzten, mahai baten inguruan ezkonsariak negoziatzea eseriko ziren, ezkongaiak non biziko ziren eta bestelako baldintzak hitzartuaz, eta bataz beste, ontzat emango zuten akordioa, hori baitzen *egin beharrekoa*. Ezkongai berririk, bestetik, ez zuten prozesu honetan zeresan handirik eta *pozik bizitzea eta eperrak jatea* besterik ez litzateke geratuko, seme-alaba pila izango zuten eta aurrera egingo zuten

halabeharrez *heriotzak haiek banatu artean*. Historiaren amaiera.

Baina batzuetan, gutxitan, gauza *okertu* egiten zen, senitartekoak ez zirelako adostasun batera iristen edota beste arrazoi batzuegatik, eta mutilaren sendiak bidean zetorren haurra ukatu egiten zuen eta egoera nahaspilatzen hasten zen.



XVIII. mendean gai hauek elizaren eskumena ziren (aurrerago jurisdikzio zibilerari igaroko ziren), ziurrenik auzi-jartzailea eta demandatua bekatua egin zutelako.

Garai hartan ADN frogak (egungo agintari ohi bati eskatzen zaizkion modukoak) zientzia-fikzioa ziren, eta konponbidea topatzeko modua hainbat lekukotasunekin egitea zen. Baina, jorratzen ari garen gaia ezagututa, norik eman zezakeen bi pertsonen arteko intimitatean gertatutakoaren lekukotasunik? Kasu gehienetan bada, baten hitza bestearenarekin kontrajarriko zen, eta egun gertatzen den moduan, horrelako egoeratan ez luke arrazoiak zuenak irabaziko, aberatsena eta defentsa egokia eskuratzeko gaitasuna zuenak baizik.

Tamalez emakumeentzat, ia ezinezkoa zen aita gizon hura zela frogatzea. Beraz, kontuan izaten badugu alde batetik

akusatua errugabea dela kontrakoa frogatu arte, eta, beste aldetik, bai sozialki baita erlijiosoki ere emakumea bigarren maila batean zegoela (eta maila erlijiosoan bere paper marjinalaz ez ezik, bere irudia bekatuarekin zegoen lotuta), horrelako auziak emakume batentzat *elementuekin borrokatzea bezala* ziren eta bere abiapuntuan galtzeko aukera handiak zituen. Horrela, Bidankozen 25 urteko epean (1748-1774) horrelako 5 prozesu egon ziren, akusatutako gizona absolbituta izan zen 3 kasutan, beste batean prozesua ez zen amaieraraino iritsi eta epairik gabe geratu zen eta behin bakarrik bikotea ezkondu zen, epaiketa-prozesua bertan behera utzi ondoren.

Artikulu honi bide eman dion kasua, zehazki, 1764. urtean hasi zen eta 1769. urte arte luzatu zen. Prozesu honetako izenburua hain zuzen hau da: *Maria Elena Maiz, Bidankozen sortua, Antonio de Urzainquiren aurka, herri berean jaioa: Eskatzaileak demandatuari emandako ezkon-hitza betearazteko eskatzen du, horren bitartez bere sendotasuna eta birjintasuna kendu zizkiolako*, eta kasu hau zehazki demandatuaren absoluzioarekin amaitu zen.

Ez dakigu ze etxeetakoak ziren auzi honetako lehiakideak (nahiz eta egumen batean jakitera iritsiko garen). Argi dagoena ika-mika sortu zuen haurra ez zela Bidankozen jaio (ez dakigu jaiotzera iritsi zen ere) eta Maria Elena ez zen herrian ezkontzera iritsi, eta ziurrenik 74 urterekin ezkongabe hil zen, bere bizitza osoan zehar bekataria izanaren estigma eramanda.

Laburbilduz, promesekin *hitzekin* bezala gertatzen omen da, esatera zaharraren arabera, *haizeak daramatzala*.

2.- HEMEROTEKA - "EKAITZ PERFEKTUA" (1915KO EKAINAREN 8A)

Azkenaldian, eguraldiak eragindako tragediaren bat gertatzen denean aldaketa klimatikoaren errua edo *erreak lehen bezain garbia ez egotearen errua dela* diogu. Baina, beste batzuetan bezala, kasu horretan ere, badira gure oroimena hain ona ez dela frogatzen duten aspaldiko idatziak.

El Pensamiento Navarrok Zeleian gertatu zela dio gainera.

Salamankako *El Adelanto* egunkariak ere gertatuaren berri eman zuen eta 11an bertan zioenaren arabera, urak hainbat txikizio eragin zituen, etxe bat eraitsi zen, eta gainera, Manuela Glaria itotzat ematen zuen.

zeuden zuhaitzen azpian babestu zen eta bertan harrapatu zuen uholdeak".

Artikuluak gaineratzen duenez, *"epaitegiak hartutako neurriek esker, Manuela Glariaren gorpua aurkitzen eta berreskuratzen lortu egin da, uholdea sortu zen lekutik bederatzi kilometroa"*.

Ematen diren datuen arabera, Manuela

Glaria gaixoa, alarguna eta 74 urtekoa, Sagarraga inguruan agertu zen. Eta ez da desagertutzat eman zuten pertsona bakarra. Kontaketa horrela bukatzen zen: *"74 urteko Santiago Urzainki bizilaguna desagertu zen beldur ziren herrian. Baina, uholdearen biktimatza ematen zutenean, herrian agertu da denen poza eta, batez ere, familiaren poza eraginez"*.

Santiago Urzainki (*Kostio*), Manuela Glariaren kintoa halaberrez, zorte

hobea izan zuen eta bizitza salbatu zuen.

El Pensamiento Navarrok, *Diario de Navarra* egindako antzeko kontaketa argitaratu zuen ekainaren 14an, eta gaineratzen duen bakarra hau da: *"beste lagun asko ere arriskuan egon ziren, baina euren bizkortasunari esker salbatu ziren"*.

Laburbilduz, handiagoa izan zitekeen tragedia izan zen, hildako bat, soro eta zelaietan hainbat kalte eragin zuena, eta etxe bat eraitsi zuena (oraindik ere ez dakigu zein den).

Zorigaitzoko eguna izan zen, baina *Bidankozarteren* hurrengo zenbakian ikusiko dugun bezala, ez da 1915ean gertatu zen ezbehar bakarra...

*Bidankozarte*ko blogean egun haietako egunkari ebakinak kontsultatu daitezke.



Oraingo honetan hizpide izango dugun jazoera duela mende bat gertatu zen, hain zuzen ere, 1915eko ekainaren 8ko arratsaldean. Egun hartan, ez ohiko hainbat baldintzek ekaitz handia eragin zuten. Zientzilariek dioten bezala, eta gurera ekarrita, "ekaitz perfektua" izan zen.

Garai hartako hedabideek hiru egun beranduago argitaratu zituzten ekaitzari buruzko lehenengo berriak, eta gutxi batzuk izan ziren. Ekaitzaren ondorengo eguneko berriak izango zirela pentsatzen dugu. *Diario de Navarra* argitaratu zituen lehenengo berri haien arabera, arratsaldeko laurak aldera sekulako ekaitz bortitza bota zuen. Menditik behera aurretik aurkitzen zuen guztia urez bete zuen. Manuela Glaria bizilaguna (*Aristu*) desagertuta dago eta urak eramane ote duen beldur dira. Zelaietan sortutako kalteak handiak dira.

Ekainaren 13an *Diario de Navarra* informazioa zabaldu zuen: *"arratsaldeko lauetan urakan bortitza sortu zen, Estoziko gainean eta Xabrosen bota zuen ekaitzak. Hainbesteko ura eta txingorra bota zuen, herrian bertan gertatu izan balitz izugarritzko ezbeharrak izanen zirela. Urak bitan banatu ziren, Igarira eta Bidankozera iritsi ziren. Banaketa horri esker ondorioak ez ziren hain larriak izan"*.

Ikusitakoa ikusi, okerragoa ere izan zitekeen. Hala ere, gertaera bizi izan zuten lekukoek testigantzak ikus ditzagun:

"Uholdea sortzen ikusi zuten bizilagunek ur-mendi bat jaisten zela ematen zuela zioten. Egurra, adarrak, lurra eta harriak zeramatzen urak".

Laburbilduz, gaur tsunami izenarekin ezagutzen duguna, baina itsasotik urrun.

Manuela Glariari buruz artikuluak dio *"soroa jorrazten ari zela, trokarte ondoan*

3.- OIKONIMIA - KOSTIOL

Gaur aukeratu dugun etxea *Iribarnea* auzoan kokaturik dago: *Kostiol* etxea. Azken aldi berritua da eta beraz, aurretik nolakoa zen ezin dugu ikusi. Dena den, berrikuntza egin aurretik ere hasierako egitura ez zen antzematen.

Gaurko kanpoko itxuragatik etxe honen iraganari buruz gutxi esaten dezakegu. Gaur egun ate nagusia Ekuador karrikan dago. Ate zaharra (etxe gehienetan bezala, kortarako sarrera zena) *Kostiol* eta *Txantxolit* etxeen artean dagoen errekaratean zegoen. Ate horrek, eta aitzineko ate gehienek, salbuespenak salbuespen, ez dute karrika nagusira jotzen. *Ekuador* karrikan argi ikusten da *Pantxo*, *Ornat*, *Maizena*, *Idazkaria* eta *Santxena* etxeetan. Salbuespenak *Arbizu* eta *Ferniando* etxeak dira. Azkenengo honetan gerta daiteke lehenagoko atea *Ornat* etxearekin partekatzen duten errekaratean izatea eta, 1841ean (etxaurrean idatzita dagoen bezala) egindako berritzearekin, *Ekuador* karrikan ireki izana.

Bestalde, *Kostiol* etxeiko mendebalde, ugaltxatik gertuen dagoen alde, jatorriko etxeiko *eranskin* bat izango litzateke eta denboraren poderioz bat egin ziren. Zati honek gaurko zeharbidean inbutu egiten du. Errepidea egin zenean polemika egon zen batzuek, herriaren onerako, *Kostiol* etxeiko eranskin hau kentzea eta errepidea zabalagoa egitea nahi zutelako. Honela egin zen bai *Santxenako* etxola batekin baita desagertutako *Koxme* etxearekin ere (*Pelairea etxe zaharra*). Baina kasu honetan etxearen jabea (eta alkatea momentu horretan) eta herria ez ziren ados jarri jaso behar zuen ordainarekin eta gaur egun ezagutzen dugun bezala gelditu zen.

Etxearen izenari dagokionez, ezer gutxi esan dezakegu. Etxekoek esaten dutenez, aurretik beste euskal izen bat omen zuen eta ugaltxaren hurbiltasuna aipatzen omen zuen baina ezin da zehaztu *Kostiol* izen horretatik datorren edo zeharo ezberdina zen. Nola edo hala, *Kostiol* izena nondik

datorren ez dakigu ezta esanahia zein izan daitekeen ere. Beharbada etxeiko baten izengoitia izan daiteke. Beste aukera bat haxe izan daiteke: Etxearen izena *kostiero* deituriko ogibidearekin lotuta egon daiteke, hau da, mendizaina. Izenak euskal jatorria izan dezake baina ez dugu antzeko hitzik gure eskualdean aurkitzen ezta esanahi logikorik ere.



Kostiol etxearen historiari dagokionez, zera dakigu: XIX. mendearen erdialdetik hona, gutxienez, azienda-etxea izan da. 1883ko katastroan abelburuen kopuruari begiratzen badiogu, Bidankozeko seigarren etxea zen. *Santxena*, *Rakax* eta *Ferniando* etxeak zerrenda buruak ziren. Nahiz eta abeltzain indartsuak izan, XX. mendearen erdialdean *Hualdernakoekin* batera lehenengo zerrategia martxan jarri zuten (*Errotan* zegoen zerratokia ez badugu kontuan hartzen).

Abeltzaina izateak botere ekonomiko eta soziala ematen zuen (abere hitzetik etortzen baita “aberatsa”) eta horrek eragina zuen *Kostiol* etxearen familia-

politikan. Belaunaldi batzuetan herriko etxe aberatsen seme-alabekin uztartzen ziren: *Larranbe*, *Txestas*, *Diego*, *Santxena*... Agian horrek etxeak udal politikan izan zuen pisuan izan zuen eragina. XX. mendean bi alkate izan zituen: Angel Urzainki Urzainki eta bere semea Robustiano Urzainki Perez. Esan behar da ere, lehenak alkatetza eskuratu zuenean ia urtero aldatzen zuten alkatea.

Aipagarria da M^a Asun Urzainkiren aurreko bost belaunaldietan etxearen transmisioa semeeci egiten zitzaiela. Beraz, gutxienez 1798tik Urzainki abizena mantendu da etxe horretan. Aurretik ezin dut ziurtatu baina hemendik gutxira Bidankozeko etxe gehienetako transmisioa 1726. urtera arte osatzen bukatuko dut. Horrela familia bakoitzaren historian hamar belaunaldiz atzera egin ahal izango dugu.

Semeek, eta batez ere seme zaharrenak, etxea jaso behar zuenaren ustea oso zabalik dago gure artean. Hala ere, Bidankozen, eta inguruko herrietan beste hainbeste gertatuko zen, lege horrek salbuespen asko zituen, horrenbeste, arautzat zutela kolokan jartzeko modukoa. Atal honetan orain arte ikusi dugun kasu askotan, belaunaldi batzuetan alabek oinordetzen zuten etxea, hainbat kasutan etxean seme bat egonda, eta, batzuetan, alaba baino zaharragoa ere izanda. Askotan ere betetzen ez den beste arau bat lehen semea oinordetzearena da. Behin baino gehiagotan, gurasoen iritziz, etxea irauarazteko ahalmen handiagoa zuen seme-alaba gazteago bat aukeratzeko zuten. Hori baitzen azken helburua: etxea eta ondasunak irauaraztea. Hori edo seme-alaba zaharrei ezkongai egokia aurkitu eta beste etxe batera esposatzen zuten, ahal zen neurrian, seme-alabak hantxerak kokatu behar baitziren ...

Bukatzeko, bitxikeri gisa, *Kostiol* etxea izan zen Bidankozen telebista izan zuen lehenengoa.

4.- TOPONIMIA - ARAIN

Oraingo honetan herritik apur bat aldentuko gara *Arain* toponimoaren inguruan aritzeko.

Iparraldera orientatuta dagoen mapa batean edo zerutik egindako argazki batean begiratzen badugu, *Arain* ingurua *Zeleiari* alderaturik legoke, baina *Bintze* ugaltxaren beste ertzean. Iparraldetik *Borderia* eta *Arzarena* alderdiekin egiten du muga, hegoaldeetik *Astrandiarekin*, ekialdeetik *Araingibelearekin* eta mendebaldeetik *Barraztua* eta *Ibarrandiarekin*.

Bere topografiari dagokionez, bere itxura fisikoari dagokionez, *Zeleiaren* berdina da, maldatsua baita, baina ez dirudi oso aproposa landaketarako. Zentzu honetan, eta ondoren toponimoaren esanahia eta jatorria ikasitakoan ikusiko dugunez, *Zeleiarekin* antzekotasuna badu ere.

Xapatero bordaraino iristen den bide batek zeharkatzen du *Arain* eta bertatik,

bai *Santa Barbarantz* bai Bidankozera hegoalderantz joan gaitezke, *Intxesarantz*. Aipaturiko bordarantz igotzen, biderearen ezker aldean, eta *Kaldereroko borda* behin ikusirik baina bertatik igaro gabe, *Kostiol etxola* aurki dezakegu, ale honetako oikonomia atalean landu dugun etxea. Aipaturiko borda eta etxola guztietan egoera hobe edo okerrago batean kasuaren arabera, hormak besterik ez ditugu zutik.

Toponimoaren etimologiari dagokionez, *Arain*, Mikel Belaskok bere *Diccionario etimológico de los nombres de los montes y ríos de Navarra*-n (Pamiela, 2000) dio *haran* euskal sustraiarekin lotzea logikoa litzatekeela, 'ibar' esan nahi duena, eta Bidankozeko hizkerak izena *Araín*eraino aldatu egin izanak. Arazoa da lekuko topografiak guztiz ez datorkiola bat izenari, baina egia da ere *Zeleia* ez zela oso leku apropos bat zelairako, nahiz eta izenak literalki hori esan nahi izatea.

Gerta izan daiteke beharbada, toponimiarekin hainbatetan gertatu den bezala, hasieran leku zehatz bat izendatzeko erabiltzen zen izena, ondoren zabalera haundiagoko leku bat izendatzeko balio du. Tesi honi ongi dagokio *Arain* ar + *gain* ("harriaren gaina", "haitzaren gaina") partikulen osatu bat bezala ulertzea, *Intxesari* (*Ilintxesa* toponimia ofizialean) erreferentziaturik, eta "g" erabilerarekin galduko zuelarik.

Amaitzeko, *Araín*ekin erlazioa duen beste toponimo bat dago, *Araingibelea* izendaturik eta bere ondoan dago. Zergatia da *Arain* + *gibelea* "*Araín*en atzean" besterik ez duela esan nahi. Modu berean, eta bere garaian esan ez nuenez, *Zelaingibelea* (edo *Zerigiblea*) "*Zeleiaren atzekaldean*" esan nahi du.

5.- BITXIKERIAK - KONTSUMO KOOPERATIBA BAT BIDANKOZEN (1915)

Kontsumo kooperatibena kontu berria ematen dute, *modan* dagoen zerbait edo, baina, egia esan, duela mende bat baino gehiago Bidankozek horrelako bat izan zuten, horrelako ekimenean herri aitzindaria izan zen eta, gainera, arrakastatsua izan omen zen. Kooperatiba noiz eta nola desagertu zen oraindik ezin izan dut jakin.

Bidankozen 1913 eta 1919 urteen bitartean apeza izandako Ausencio Jiménez Jaunak abiatu sortu omen zen kontsumo kooperatiba, non 1914. urte inguruan eta, beharbada, Lehenengo Munduko Gerraren hasierak eraginda, bere feligresen bizitza hobetzeko proiektu hau bultzatu zuen. Ausencio Jauna Bidankozen eman zuen denbora laburrean (egiaz 1913-1917, 1918. urte ia osoa Iruñean gaixo eman baitzuen eta 1919. urteko hasieran parrokiak aldatu zen) arrastoa utzi zuen, bera apeza izanda *Bikaria* (apezaren etxea) zaharberritu egin

zelako eta hemen aipaturiko kooperatiba martxan jarri zelako. Karlista ideologia nabariko apeza zen, guztiz aurkako ideologia zuen herri batean (gaur egun sinesgaitz iruditu arren), baina bere feligresen konfiantza irabazten jakin zuen.

Apezak bultzaturiko *asmakizun* honek *Bidankozeko Nekazal Kutxa Katolikoa* zuen izena, eta bere bazkideentzako produktuak merkatuan baino prezio merkeago batean lortzea zuen helburu eta, gainera, produktuak Bidankozeraino iritsi zitezela, luze joan beharrik gabe euren bila. Horrela, berarekin erlazioaturiko lehendabiziko gertakizuna (eta momentuz bakarra) garia kopuru handitan erosteko lehiaketa bat izan zen, 18.200 kg hain zuzen ere, 1915teko urtarrilean, Eusebio Pérez Urzainqui (*Diego*) bere lehendakaria izanda.

Honen inguruan datu gehiago ez dugun arren, 1915. urteko udako aldizkarietako albisteek adierazten

dutenez, inguruko hainbat herri berdina egitekotan ziren honen arrakasta ikusirik. Kooperatiba parte hartzaile guztientzat onuragarria zen, baina bereziki ahalbide murriztenak zituztenentzat, euren ekonomia errazturik ikus zezaketelarik.

Azkenik, *Marikalda* deituriko norbaitek sinaturiko prentsa artikulu batean, elkarte hau bultzatzeagatik herriko merkatariren batek apezaren aurka jo zuela dio. *Inoiz ez da guztion gustura euria*.

Kooperatiba honekin bezala, gure herri honekin erlazioatuta dauden hainbat kontu ezezagun badago, batzuk dagoeneko aurkituta, eta beste batzuk agertzeke, baina guztiek lerro bat edo beste merezi du ahantz ez ditzagun.

Elkarte honen inguruko aldizkari artikulu batzuk ere irakur daitezke *Bidankozarte*ko blogean.

6.- BUKAERA

Besterik ez. Hor Endone Petri inguruan, uda sartzen denean, gehiago.

Ordura arte, osasuna eta jaki onak. Ekainan ikusiko dugu elkar.